



Gorka Bereziartua

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Kultura luxu bihurtu da egunkarietan

LITERATURARI eskainitako orrialdeak gutxitzea erabaki du Suediako *Svenska Dagbladet* egunkariak eta kultura saila “bizi estiloer” eskainitako atal bihurtzea –hau da, orrialde horiek modaz, etxea dekoratzeko aholkuz eta bidaiatzeko gomendioz betetzea–.

Erabakiak Lars Lönnroth literatur kritikari eta orain langabetuaren haserrea eragin du, “Kultura luxu bihurtu da” salatu du, bere ustez esparru intelektualean urte osoko merkealdiak zabaldu baitituzte egunkarietako zuzendariak (frantsesez eta gaztelaniaz irakur daiteke artikulua Presseurop.eu webgunean).

Kontuak gutxi du berritik: “2000. urtearen inguruan hasi zen orrialde kulturalen benetako gainbehera eta nagusitzen joan zen gero, gutxi gorabehera *modus operandi* berdina erabiliz, egunkari handi guztietan, irakurleak papereko egunkariaren harpidetzak eteten hasi zirenean, Interneten doan irakurtzeko”. Suedian bezain

hotz daude kontuak tropikal izateari aspaldi utzi zion Euskal Herrian; hartu egunkaria, edozein, eta esan non dagoen kultura saila, hasieran, erdian, amaieran; zenbat orrialde dituen; eta nolako edukiak. Zenbat analisi, eztabaida, kritika, hitz batean, sakontasun. Zenbat propaganda, arteen aitziko kontu, hutsalergia.

Fribolitatearen aldeko hautu horrek arriskuak ere badituela ohartarazi du Lönnrothek artikulua bukaeran: “Burgesia eskolatua publiko fidela izan da orain arte eta harpidetzak eteten hasi da. (...) Unibertsitate giroko irakurle zorrotzek ere, aldizkari intelektualagoetara joko dute”.

Ez dakit hala izango ote den. Dakidana da, geroz eta gutxiago interesatzen zaizkidala egunkarietako kultura orrialdeak eta aldiz, geroz eta gehiago jotzen dudala kritika, iritzia eta analisisia eskaintzen didaten argitalpen eta webgunetara. ■



Lars Lönnroth literatur kritikaria eta orain langabetua.

BERTSO BERRIAK

Bandera espanyolari jarriak



DANI BLANCO

Jokin Sorozabal



Doinua: Esne saltzailearena.

Hamaika ikusteko sortu omen gara (bis): bandera espanyola udaletxetara. Harridura ote da edo hotz-ikara? Zertarako bandera balkoiean para? Espanol bat bakarrik herrian ez bada? (bis)

Bandera bat ez bada herriak jasoa (bis) bere onarpenean dago arazoa antzeztu nahi duzue España osoa trapu txiki batentzat zer konpromisoa! Lotsaz ajatuko da bandera gaixoa (bis).

Ez hasi saltsa bila kontu hau hartuta (bis) “*en lugar preferente*” jarriko dugu-ta: Zer moduz elizako *pararraio* punta? Tximista sartzen bada ez da gure kulpa. Su hartzen baldin badu San Pedrori multa (bis). ■

